



BERAZUBIKO JAIETAN JARDUERA BERRIAK

Bihar hasiko dira Tolosako auzoko jaiak; astelehena bitarte ekitaldi ugari antolatu dituzte >3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-10-08

VIIURTEA 1.796.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO




Gaudentzen elkarteko Nekane Ciganda eta Alberto Etxeberria, herenegungo aurkezpenean. E.EZEIZA

KOMUNITATE GORRAREKIN SENTSIBILIZATZEKO

TOLOSA Bihar hasiko da VI. Gorren Sentsibilizazio Astea, Gaudentzen elkarteak antolatuta; gaztetxoentzat ere izango dira ekitaldiak 2

Pako Larrañaga laster eramango dute Madrildik Martuteneko espetxera

ALEGIA Atzo goizean izan zen alegiar jatorriko presoak Espainiako Auzitegi Nazionalen; egun gutxi barru Martutenen izatea espero du bere abokatuak 7



E.MAIZ

MAIALEN ABAIGAR - UGAITZ LARRETA REMI GOGOAN EKIMENA

«Herriaren alde egin
zuen lanaren erantzuna
izango da omenaldia»

VILLABONA Remi Gogoan ekimena sortu dute Remi Ayestaranen gertukoek; etzi omenaldia, eta aurrera begira ekitaldi gehiago egingo dituzte 4

**Euskal Herria
Egunean 75
lizarratarrek
hartuko dute
parte ibarran 6**

**Tolosako San
Esteban auzoko
Kultur Astea etzi
hasiko da mendi
ibilaldiarekin 5**



Haurrentzako ekitaldiak ere izango dira Gorren VI. Sentsibilizazio astean

Gizartea » Komunitate honek dituen arazoak ezagutzera emateko asmoz, hainbat ekitaldi izango dira bihartik aurrera.

ESTI EZEIZA

Gorren eta entzun dezaketenen arteko komunikazio mugak gero eta txikiagoak dira, garaiak eta teknologiak aurrera egiten duen heinean. Baina, Gaintitzen, Goierriko eta Tolosaldeko gormutuen elkarrekin, garbi du oraindik ere lan handia egin beharra dagoela jendea sentsibilizatzeko. Asmo horrekin, duela hainbat urte hasi ziren Gorren sentsibilizazio astea antolatzen, eta orain, seigarren aldiz ospatuko dute.

Bihargoizean hasiko dira ekitaldi nagusiak. Hala, aurten, lehendabiziko aldiz, etxeko txikiengana pentsatuz, hauei zuzendutako ekitaldi desberdinak egingo dituzte Leidor antzokian. 10-11 urte inguruko eskualdeko ikastetxeetako ia 500 haur elkartuko dira bertan. Gehienak entzuleak baldin badira ere, artean gormutuak ere izango dira.

Urtero gauzatzen den egitasmo honen xede nagusietako bat mugak apurtzea. Hori dela eta, orain arte haurrekin ezer egin ez badute ere, oraingoan txikiengana ere lan egitea erabaki dute.

Larunbatean berriz, bi antzerki ikusteko aukera izango da Leidorren. Hauek zeinuen hizkuntzan izango dira, baina itzultzaile bat egongo da bertan, hau ez dakitenei itzultzeko. Emanaldirako sarrerek lau euro balio dute. Hala ere, 14 urte baino gutxiago dituztenak, doan sartu ahal izango dira antzokira.



Alberto Etxebarria Gaintizenero lehendakariak eta Nekane Ciganda, bertako kideak aurkeztu zuten ekimena. E. EZEIZA

» EGITARAUA

Urriaren 12ra arte

■ **Erakusketa.** Komunikazioaren muga izeneko talla erakusketa ikusgai izango da San Frantzisko pasealekuan.

Urriak 9, bihar

■ **10:00etatik aurrera.** Leidorren ekitaldi desberdinak egongo dira haurrentzat: mimoak, ipuin tailerra, laburmetraien proiektioa...

Urriak 10, etzi

■ **17:30.** El Grito, Madrilgo antzerki

taldeak *Pequeños crimenes conyugales* lana aurkeztuko du Leidorren.

■ **19:00etan.** Murtziako Triscenio antzerki taldearen emanaldia izango da Leidor aretoan. Hauek, *Un trozo de ti* antzezlanak aurkeztuko dute.

Urriak 11, igandea

■ **17:30ean.** Film laburren proiektioa izango da zeinuen hizkuntzan, Hirukide ikastetxean (Eskolapioetan).

Madridik eta Murtziatik datoz antzerki taldeak. Bigarrenen kasua gainera berezia da, aktore guztiak entzuleak baitira, nahiz eta gorren hizkuntzan egin lan.

Urteroko klasikoak da berriz, film laburren saioa. Aurten ere Hirukide Eskolapioetan izango da emanaldia. Sarrerek hiru euro balio dute. Ondorengo filmak ikusteko aukera izango da: Marus Carmo-naren *Marcapaginas*; James Banks-en *Danny*; Aurora Santanaren *Caravana de mujeres*; Endika Castroren *Los ojos del amor*; Manu Colinas eta Javi Mateosen *Trifur-*

cacion; Manu Colinasen *LSD*; Christain Gordoren *Hora de soñar o sueño cumplido* eta Alberto Casellasen *El Chico X*.

Bestalde, datorren hilean, azaroaren 14 eta 15ean film laburreko tailer bat egingo da. Honek 12 orduko iraupena izango du. Christain Gordo eta Manuel Colinas izango dira irakasleak. Era berean, azaroaren 21ean eta 22an, antzerki tailerra egingo da, zeinu hizkuntzan. Honek ere 12 orduko iraupena izango du eta El grito taldekoek eskainiko dute.

Hausnarketekin hasteko, erakusketa ikusgai

Sentsibilizazio Astea oraindik hasteko baldin badago ere, Gaian mugiltzen joateko, San Frantzisko ibiltokian hainbat kartel jarri zituzten, mezu ezberdinak zabalduz. Guztietan ere helburua euren egunerokoa izaten dituzten ga-bezi eta traben berri ematea da, sentsibilizazioa lortze aldera.

Gizartearentzat hain ohikoak izan daitezkeen jarduerak batzuk burutzea beste batzuentzat ia ezinezkoak bilaka daitezke. Gorrek eurentzat zailak diren hainbat irudikatu dituzte kartel hauetan. Esaterako, telebista ikustea. «Azpitu-tuluak ez dituzte kate guztiek saio guztietan erabiltzen». Ondorioz ezin dute nahi bezala ulertu bertan gertatzen dena.

Krisiak ere eragin handia

Gainontzeko herritarrengan bezala, krisiak eragin handia izan du gorren munduan. Sentsibilizazio Astearen asmoetako bat da, beraien arazoak ezagutzera ematea, eta horietako bat da langabezia. Langabetan kopurua azken hilabeteetan areagotu egin baita. Alberto Etxebarria, Gaintitzen elkartearen lehendakariak azal dutakoaren arabera, arazo handiak dituzte lan munduan integratzeko, interpretatzen falta direnez, ezin baitituzte ikastaroak egin, eta enprezetako nagusiek ez dituzte kontratatu nahi.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Sutarako egurra.** Sutarako egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetro-trotara motua. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 615 75 57 62.

EROSTEKO

■ **Traspalet karretila.** Bigarren eskuko traspalet karretila bat erosiko nuke. Harremanetarako deitu 648 00 47 98 telefono zenbakira.

BESTEAK

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe ondorengo telefono zenbakietara. Belen: 695 70 82 71 eta Gurutzte: 638 94 46 04.

Gobernuz Kanpoko Erakundeek laguntzak eskatzeko epea zabalik

Gizartea » Hilaren 30ean amaitzen da eskaerak aurkezteko epea; Tolosan egindako ekintzak bultzatzeko dira hauek.

ERREDAKZIOA

Tolosan ordezkaritza duten Gobernuz Kanpoko Erakundeentzat, Tolosan bertan egin dako ekintzengatik diru laguntzak emango ditu Udalak. Hauek eskatzeko epea urriaren 30ean amaitzen da, 13:00etan.

Nazioarteko lankidetzeta progra-

maren baitan dago laguntza hau. Nortasun juridikoa duen eta irabazi asmorik gabekoa den edozein gobernuz kanpoko erakundeak eskatu ahal izango ditu, baldin eta jarduerak deialdiaren helburuarekin bat etortzen badira.

Laguntza eskatzen duen erakunde edo elkarteak diru laguntza eskuratu ahal izateko baldintza hauek bete beharko ditu: elkartasuna eta baliabide pribatuak mobilizatzeko gaitasuna izatea; diru laguntzen helburu diren ekintzei eusteko gaitasuna izatea; Tolosako Udaleko Elkartearen Erregistroan izena emanda egotea eta Osasun

eta Gizarte Zerbitzueta Departamentuak lehenago emandako diru laguntzei dagozkien gastuak behar beste eta esandako epeen barruan zurrututa izatea.

Diru laguntzak emateko, kontuan hartuko dira Tolosan egiten dituzten ekintzak, bai boluntarioak bilatzeko, bai sentsibilizazioa eta prestakuntza lantzeko garapena bultzatzeko gaien inguruan.

Eskaerak udalarekin aurkeztu behar dira hilaren 30a baino lehen. Eskatzaileek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte. Aldebatetik, eskaera orria, entitate eskatzaile ordezkatzen duen pertso-

nak sinatuta. Baita entitate eskatzailearen estatutuak ere, baldin eta aurreko deialdietan ez badira aurkeztu. Honez gain, jardueraren urteko programa edo proiektu xehatua erakutsi beharko dute. Garbi adieraziz helburuak, nori zuzenduta dagoen ekintza, ekintzaren edo jardueraren edukia eta agitasmoak gauzatzeko epeak eraman beharko dituzte. Azkenik, aurreikusitako sarreraren eta gastuen aurrekontua. Edonola ere, beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako laguntzak garbi adieraztea eskatzen da.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ostean, Osasun eta Gizarte Zerbitzueta Batzordeak jaso diren eskaeren txostena egingo du, eta honekin batera erabaki proposamena aurkeztuko dio Udal Gobernu Batzarrari.

Laburrak

Askaria egingo dute gaur lurreamendi egoitzan

TOLOSA ● Lurreamendi egoitzan askaria egingo dute gaur bertako egoiliar batek 100 urte betetzen dituela ospatzeko. Hain zuzen ere, Rosario Mendiluze izango da 100 urte beteko dituena.

Lagunak eta autoestimua, Guraso Eskolako gaiak

HEZKUNTZA ● Lazko gurasoen eskara kontuan edukita, ikasturte honetarako Guraso Eskolaren barruan, *Seme-alaben lagunak* eta *Seme-alaben autoestimua* gaiak landuko dituzte Orixe Institutuan. Hiru saio izango dira, euskaraz, eta Jose Amiama psikopedagoak emango ditu. Lehenengo saioan, urriaren 14an, koadrilak beraien-tzat duen garrantziak jabetuko dira. Beste bi saioak, urriaren 21ean eta 28an, autoestimuari buruz izango dira, eta seme-alaben autoestimua nola indartu landuko dute. Orixe Gorosabeleko liburutegian bilduko dira, 18:30etik 20:30era. 1, 2 eta 3. DBhko ikasle-en familiak daude gonbidatuta. Tolosako Udalak Gizarte Zerbitzuen bidez emandako diru laguntzaz gauzatu dute ekimena.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdi: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen.: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurreamendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Bihar hasiko dira Berazubiko jaiak jarduera «berri eta interesgarriekin»

Jaiak » Bertso afaria egingo dute bihar, eta etzi graffiti tailerra izango da; ohiko ekitaldiak ere izango dira egitarauan.

ERREDAKZIOA

Bihar hasi eta astelehena bitarte jai giroan murgilduko da Berazubi auzoa. Egitarau bete prestatu dute antolatzaileek, «jarduera berri eta interesgarri ugariarekin», eta gainera, jaiak egun bat gehiago izango dute aurten, astelehena jaieguna baita.

Azken bi urteetan bezala, auzoko gazte lokaleko jendea arduratu da antolakuntzaz eta iragan urteko emaitza «ezin hobeak» eta gero, antzeko egitaraua eratzeko erabaki dute. Hala ere, jarduera berriak ere antolatu dituzte: esaterako, bertso afaria izango da bihar, eta etzi, guztietatik irekita egongo den graffiti tailerra egingo dute. Afarirako txartelak 66 Tabernan erosi ahalko dira, eta salneurria 15 eurokoa da.

Lau egun «alai eta dibertigarri» hauen zehar ohiko jarduerak ere beraien tokia izango dutela azaltzen dute antolatzaileek. Bihar arratsaldean umeei zuzendutako jarduerak egongo dira eta auzokideek sukaldaritzan duten trebezia erakusteko parada ere izango dute patata tortilla eta paella txapelketetan. Halaber, zezenaren aurrean aritzea gustuko dutenek beraien gaitasuna erakutsi ahal izango dute etzi eta astelehenen arratsaldean zezen-plazan.

Musika eskaintza zabala

Jai hauen ezaugarri berezietako bat musika dela diote Berazubi au-



Aurten ere herri bazkaria izango da Berazubin. A. IMAZ

zoko gazte lokaleko kideek, eta horregatik «urte honetako proposamena zabala eta interesgarria izango da». Bihar, esaterako, 23:30etik aurrera Funtastic Planet eta Potentor taldeak ariko dira auzoko eskenatokian, eta hauen ostean, 02:00etan, rock musika jartzalea ariko da txosnan.

Etzi, larunbatean, Disko Festa egingo dute, 23:00etan hasita, eta ondoren, 02:00etatik aurrera, Puntzaka Djak «musika berriak» jarriko ditu txosnan. Igandean ere izango da zuzeneko musikaz gozatzeko aukera, izan ere, Manent eta Kraken taldeak ariko dira 23:00etatik aurrera. 02:00etan, berriz, Djak hartuko du lekukoa, musikarekin jarraitzeko.

Nahikoa osagai badituzte, beraz, Berazubi auzoko jaiak bertaratu eta ederki igarotzeko.

» EGITARAUA

Urriak 9, bihar

■ **19:25.** Txupinazoa.

■ **20:00.** Bertso-poteoa eta afaria.

■ **23:30.** Kontzertuak: Funtastic Planet, Potentor eta Ibex.

■ **02:00.** Rock musika jartzaleak eta mozkor kirolak.

Urriak 10, etzi

■ **12:00.** Patata tortilla txapelketa eta laguntzeko txakolina banatuko dute.

■ **16:00.** Mus txapelketa.

■ **16:30.** Umejokoak.

■ **17:30.** Umeentzako merienda.

■ **18:00.** Buruhandiak.

■ **18:30.** Grafiteroak erreka ondoko paretan.

■ **23:00.** Disko Festa DJon Urbietarekin.

■ **02:00.** Puntzaka DJ txosnan,

musika berria eskainiz. Ondoren, txokolatada egingo dute.

Urriak 11, igandea

■ **08:00.** Txistulariak.

■ **09:00.** Meza.

■ **14:00.** Paella txapelketa.

■ **17:00.** Buruhandiak.

■ **18:00.** Zezentxoak zezen-plazan.

■ **21:30.** Zahagi sagardoa.

■ **23:00.** Kontzertuak: Manent eta Kraken.

■ **Tartean.** Mozkor kirolak.

■ **02:00.** DJa.

Urriak 12, astelehena

■ **14:00.** Babarrun jatea.

■ **Ondoren.** Toka txapelketa.

■ **17:30.** Zezentxoak zezen-plazan.



Musika Eskola berrituarekin «gustura»

AZPIEGITURAK ● Espainiako Gobernuak sustaturiko Toki Inbertsiorako Funtarren baitan, Musika Eskolaren kanpoaldea berritu dute. Hala, obrak amaitu dituztela eta, Espainiako Gobernuaren Gipuzkoako ordezkariordea, Francisco Jordan de Urries, izan zen atzo emaitza ikusten. Berarekin izan ziren Udaleko ordezkariak ere, eta «gustura» azaldu ziren emaitzarekin. Gisa honetako gainerako lanei dagokienaz, bihar presaren pieza jarriko dute, eta azaroaren lehen astean oinezkoen pasabidea amaituta egotea espero dute. Hurrengo urterako, Tolosak 2 milioi euro jasoko ditu gutxi gorabehera horrelako obrak egiteko. I.T.

E **Elkarrizketa****MAIALEN ABAIGAR ETA UGAITZ LARRETA** » Remi Gogoan Ekimeneko kideak

E. MAIZ

«Berak herriaren alde eginiko lanaren erantzuna izango da»

Villabona » Remi Ayestaranen lagunek eta gertukoek Remi Gogoan Ekimena sortu dute. Aurrera begira, berak gustura antolatuko zituen ekintzak egingo dituzte.

ENERITZ MAIZ

Remi Gogoan Ekimena sortu dute Remi Ayestaranen inguruko lagunek. Helburua, aurrerantz, «Remik eginiko lana gogoan izatea eta berak egingo zukeen moduan, urtean zehar ekintza ezberdinak antolatzea» izango dute. Lehen ekintza, etzirako prestatu duten herri omenaldia izango da.

Remi Gogoan Ekimena sortu duzue. Nortzuk izan zarete sortzaileak?

Ugaitz Larreta. Remiren lagunek sortu dugu. Bere gertuko jendea izan da, ez gara koadrilakoak bakarrik, denetarik dago.

Zein da Ekimenaren helburua?

Maialen Abaigar. Remirena uztailearen 31n gertatu zen eta hemendik aurrera, festa guztiak mar-

katuta geratuko dira. Ez genuena nahi, hasieran omenaldiak-eta egin eta gero erabat ahaztuta gertatzen zen. Bere oroimena mantentzea nahi dugu eta bera gogoan izateko ekitaldiak prestatuko ditugu.

U.L. Uztailearen 31ko eguna ez dugu dolu egun batean bihurtu nahi. Berak ere ez zuen horrelakorik nahiko.

Beraz, ez da herri omenaldiarekin bukatuko?

M.A. Gure asmoa jarraitzea da eta ekimen ezberdinak antolatzea bera gogoan izateko. Adibidez, buruan festa egun bat badugu. Ez du zertan dolu eguna izan behar. Eta ateratzen dugun dirua ekintza ezberdinak antolatzeko izango da eta berak gustuko zituen edota parte-hartzea bultzatzen duten ekintzak izango dira.

U.L. Azken finean, balore horiek mantendu nahi ditugu eta bera identifikatzen dutenak izango dira.

Orain buru belarri herri omenaldia prestatzen ariko zarete?

M.A. Herritar eta eragile ezberdinek omenaldi honetan parte hartu dezaten saiatu gara. Herritik kan-

poko batzuei ezetz ere esan behar izan diegu. Herri guztietan harremana zuen jendeari aukera eman ez gero, oso omenaldi luzea egin beharra izango genuen eta herrira mugatu gara gehienbat, nahiz eta, kanpotar batzuek ere parte hartuko duten. Esaterako, Burgoseko ikaskideekin oso harreman estua zuen eta parte hartu nahi zutelako katu ziguten eta bertan izango dira.

U.L. Bera herriari begira zegoen erabat eta herriak parte hartzen duen omenaldia egin nahi izan diegu. Parte hartu nahi izan duten herriko eragile ezberdinetako kideak izango dira. Eta herritik kanpoko jendearengandik babesa somatu dugu eta bera mugitzen zen herri ezberdinetatik ere laguntzeko prest azaldu zaizkigu.

Herri omenaldia herritarrei soilik zuzendua izango al da?

U.L. Herritarrek, Remik herriaren alde eginiko lana eskertzeko helburua duen omenaldia izango da baina inondik inoraez damugatu. Gonbidapena eginda dago eta omenaldiaren berri kanpora ere zabaldu da.

M.A. Lehenasuna nolabait herritarrek dute baina era berean, Remi eta bere lana baloratzen duen Euskal Herriko edozein gonbidatuta dago Villabonara, omenaldian parte hartzera.

Omenaldian tristura momentuak ekiditen saiatuko zarete?

U.L. Bera gogora ekartzeko une horietan tristura momentuak izango dira. Bere izaerarekin bat eginez, aurrera begira ere indarrak batzeko baliatu nahi dugu.

M.A. Bai argazki bidez eta baita bideo proiektio bidez, bere hitzak sartzeko saiatu gara eta asko jai girokoak edo lanean ari zeneko unek dira. Honekin, momentu atseginak izaten saiatuko gara. Amaieran ekimeneko kide eta lagunak igoko gara eta bertaratu omenaldiarekin ez dela bukatzen adieraziko diegu eta aurrera begira ere, bera presente izaten saiatuko gara.

Zein egoera duzue Villabonako Udalean?

M.A. Udal taldeko kide berria jada lanean hasia dago. Bereganajo genuen esku bat botatzeko prest egongo zen jakiteko eta baiezkoa eman zigan. Tramiteak eginak ditugu baina oraindik ez dugu erantzunik jaso eta momentu honetan bozka bat gutxiagorekin gaude. Eta gogorra egiten da. Kurtso berria hasita gaur [atzo] izango dugu lehen osoko bilkura eta ea oposizioak agertzen diren.

Oposizioaren aldetik erantzunik edo jaso al duzue?

M.A. Ez dugu inolako erantzunik izan eta alde horretatik oso minduta gaude. Deiren bat izan zen baina oportunitate bueltan ez dugu beraien berririk. Batzordeetara ere ia ez dira agertzen. Gogorra da zeren-eta Remik bi batzorde handi zituen beregain eta Gaztelekuaren proiektua aurrera eraman behar zuen. Hori nik hartu dut. Pertsonal kontuak ere berak eramaten zituen eta hori Julito zinegotziak hartu du.

Zinegotzi berriaren kargua ofizialki ez dago onartua, beraz, oraindik.

M.A. Nahiko beltz ikusten dugu, gainera. Beste herriren batean, antzeko egoera batean, eskaria egin eta atzera botatu zuten, baina gusaia-tu egingo gara.

Arraun eta Helduen Xake ikastaroetan izen emateko aukera zabalik

Anoeta » Arraun ikastaroa

Errota Poligonoan eta Xakea Hozpel Kaleko Udal lokalean egingo dira.

E. MAIZ

Anoetan helduentzako bi ikastaro antolatuko dituzte. Arraunean edo Xakean ikasteko aukera izango da abendu bitarte.

Arraun ikastaroa

Arraunean ikasteko prest egonez gero eta herriko festetan egiten den batel txapelketan parte hartu nahi izanez gero, aukera paregabea dago orain Anoetan arraunean ikasteko. Anoetako arraunlariek ikastaroa antolatu dute eta ikastaroa, urriaren 17an hasiko litzateke eta abenduaren 19a bitarteko larunbatetan izango litzateke. 15:30 etik aurrera bi orduz, gutxi gorabehera izango da. Ikastaroa doan izango da Errota Poligonoan. Izena udal txapelean edo kiroldegian eman beharko dute, urriaren 14a baino lehen.

Helduentzako xakea

Xakearen kasuan, 6 eguneko ikastaroa izango da eta egun bakoitzean ordu eta erdiko saioa egingo dute. Urriaren 14an, asteazkena, hasiko litzateke eta azken eguna berriaz, azarokoaren 19a izango da. Orduetara, aukeran dago: asteazkenetan 15:15etatik 16:45era edo ostegunetan 09:15etatik 10:45era. Hozpel Kaleko udal lokalean izango litzateke ikastaroa eta kasu honetan, 10 euro ordaindu beharko dira.

Ikastaroan izena ematen dutenen artean, murriztapenak izateko aukera: Gazte txartela izanez gero %10eko beherapena, famili ugariaren kartila izanez gero %25eko beherapena eta murriztapen bereziak diru sarrera baxuak dituztenentzat. Izena emateko aukera, bihar, ostirala, 17:15etatik 20:15etara izango da Xake txokan, Hozpel kaleko udal lokalean bertan.



TXOKOA HITZA

HITZAK sarrera pare du

LAGUN ARO GBC
Suzuki Manresa
saskibalo partida

Urriak 11 • Igandea • 19:00etan
Donostiako Ilunben

HITZAK sarrera pare du

Euskal Herriko
Bertsolari Txapelketaren
baitan ospatuko den
bertso saiorako



Urriak 10 • Larunbata • 17:30etan • Leitzako Udal Kiroldegian

HITZAK
2 sarrera pare ditu

SORKUN
kontzertuan

Urriak 10 • Ostirala • 22:30etan
Tolosako Bonberenean

sarrerak



sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira



Jendetza bildu ohi da auzoko bazkarian; urriaren 18an egingo dute. A. OTEZABAL

Mendi ibilaldiak irekiko ditu San Estebango Kultur Astearen ateak

Tolosa » Etzi hasi eta astebetetzera guztietako ekitaldiak izango dira auzoan; herri krosa urriaren 12an izango da.

ERREDAKZIOA

Hogeita bi. Ez da kopuru makala, ez behintzat kontuan hartuta aurtengo San Estebango Kultur Asteak betetzen dituen urteen kopurua dela. Etzi ekingo diote T'onttor San Esteban auzokide kultur elkarteak antolatuta eta ezinbesteko bilakatu diren hainbat hitzordu dituzte bere egitarauan.

Aipagarriena, agian, astelehene-

an, urriaren 12an, ospatuko den herri krosa da. Izanere, askorentzat datorren hilabetea izango den Behobia prestatzeko oso baliagarria izaten da.

Kirolari lotuta beste hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte, etzi Kultur Astea bera irekiko duen mendi ibilaldia, esaterako.

Kultur Asteak eskatzen duen bezala, kultura izango da protagonista, noski; antzerkia eta musika kontzertuak izango dira, esaterako.

Eta aisialdirako tartea ere izango da heldu nahiz gaztetxoentzat. Azken hauentzat jolasak, txokolatete jateak, buruhandiak, ... izango dira, besteak beste.

» EGITARAUA

Urriak 10, etzi

■ **09:30.** Auzotik mendi ibilaldia haur eta helduentzat.

Urriak 12, astelehena

■ **11:00.** Tolosako XXII. herri krosa.

Urriak 14, asteazkena

■ **20:00.** Taghia bertikala goi mendi eskolako kiden den Jon Mujikaren eskaladaa diaporama.

Urriak 15, osteguna

■ **19:00.** VII. Patata Tortilla Lehiaketa. Ondoren luntxa.
■ **22:30.** *Yo los mate, evidentemente* antzezlan, Jaime Ocañaren eskutik.

Urriak 16, ostirala

■ **23:00.** Tambua Bashashaa afrikar perkusioa eta Katuburu brasildar perkusioa eta melodiak. Ondoren, DJ Talo eta Aritz Sound system.

Urriak 17, larunbata

■ **16:00.** Altxorraren bila eta mus txapelketa
■ **16:30.** Haur jolasak eta zaldi gurdian paseoa auzotik.
■ **18:00.** Buruhandiak.
■ **19:00.** Txokolate jatea.
■ **24:00.** Makulu Ken taldearen kontzertua. Ondoren, Rock and Roll, Break Beat eta Drum and Bass gaua Jokin eta Gorkitaren eskutik.

Urriak 18, igandea

■ **09:00.** Diana herriko txistulariekin.
■ **10:00.** Trikitixa herriko baserrietan.
■ **11:00.** Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan.
■ **12:00.** Toka txapelketa gizonezko-emakumeentzat auzoko txar-rangak alaituta.
■ **14:00.** Auzoko babarrun jatea.
■ **Ondoren.** Dantzaldia Koxkorre-na orkestrarekin.

Eskulan eta josteta ikastaroak antolatu dituzte Amarotzen

Tolosa » Auzoko jubilatuek 40 orduko ikastaroak prestatu dituzte; interesatuek 40 euro ordaindu beharko dituzte.

ERREDAKZIOA

Amarozko jubilatuek bi ikastaro antolatu dituzte. Eskulan eta josteta landuko dute bertan, 40 orduko ikastaroak izango dira eta 40 euro ordaindu beharko dituzte interesatuek.

Josketari buruzko ikastaroari urriaren 13an, asteartearrekin, emango diote hasiera, 16:00etatik aurrera. Bertan, besteak beste, arropa nola konpondu edota Inauterietarako jantziak nola prestatu erakutsiko dute.

Eskularen ikastaroari, berriz, egun bat beranduago, urriaren 14an emango diote hasiera, 15:00etatik aurrera. Errusiar por-

tzelana, makramea, ohialean margotzea, egurrean margotzea, harezko koadroak, ehoziri, orratz, kakorraz, ... bezalako eskulanak nola egin erakutsiko dute ikastaro honetan.

Izena emateko edota informazio gehiago eskuratzeko bi telefono zenbaki zabaldu dituzte Amarozko jubilatuek: 676 241 960 (Maitengatik galdetuta) edota 635 757 786 (Katyngatik galdetuta).

» IKASTAROAK

- **Josteta.** Urriak 13tik aurrera, 16:00etan.
- **Eskulanak.** Urriak 14tik aurrera, 15:00etan.

Beste hainbat datu

- **Prezioa.** 40 euro.
- **Iraupena.** 40 ordu.
- **Informazioa.** 676 241 960 (Maite) edo 635 757 786 (Katy).

Laburrak

Zine eskaintzari ekingo diote berriro asteburuan

VILLABONA » Azken hilabeteetan eskaintzarik izan ez den arren, Guerea aretoak asteburuan ekingo die berriz ere bere ohiko zinema emanldiei. Lehen emanaldia etzi, larunbata izango da. *Malditos Bastardos* filma emango dute 19:30etan eta 22:30ean. Igandean *Pequeños invasores* filma izango da ikusgai, 17,00etan; eta *Malditos bastardos* 19:30etan eta 22:30ean. Astelehenean, Ikuslearen Eguna, 17,00etan *Pequeños invasores* emango dute eta *Malditos Bastardos* filma botako dute berriro, 21:30ean.

40 urte dituztenen bazkarirako izen-ematea

TOLOSA » 1969. urtean jaiotako gizon eta emakumeentzako bazkaria antolatu dute azaroaren 14rako, larunbatarekin, Fronton jaxtean. Bertara joateko interesa dutenek izena eman dezakete, 55 euro ingresatuz La Caixa-ko 2100 1758 64 0100260547 kontu korrontean.

mantangori rekin
Zinema etxean 4
6 DVD euskaraz
Larunbat honetan 1. DVDa + kaxa opari
Gipuzkoan eta Nafarroan
Berria
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA BARRA: Herriko Kulturaren Erakundeak

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

75 lizarratarrek hartuko dute parte Euskal Herria Egunean

Ibarra » Larunbatean Ibarra eta Lizarra herrien arteko senidetze eguna ospatuko dute; 10:00etan egingo diete harrera.

REBEKA CALVO

«Euskal herritarrek garela aldarrikatzeko» eguna izango da etzi, Ibarra.

Euskal Herri Eguna bezala baitailatu dute larunbatekoa eta Ibarrraren eta Lizarraren (Nafarroa) arteko senidetzea egiteko ere baliatuko dute. Oraingoz 75 bat lizarratarrek eman dute izena larunbatean Ibarra etortzeko.

Helburua bikoitza da, aipatu euskal herritarren izaera aldarrikatzearekin batera «bi probintzieta herriren senidetzea» burutu nahi dute, hartara «erlazio aberasgarria» burutu ahal izateko. «Gure sentimenduak alda zitezen banatu gintuzten, baina zappi anai-arrebok ama bakarra maite dugu: Gora Euskal Herria», nabarmendu dute. Ekimena Bai Euskal Herriarik antolatuta du Udalbiltzak abiarazitako herrien arteko senidetzeari jarraiki.

Otsailetik hona dena antolatzen

Bai Euskal Herriari taldeko kideak pasa den otsailen hasi ziren Euskal Herria Eguna antolatzen.

Hilabete hauetan guztietan Lizarrako eta Ibarrrako taldeen arteko senidetzea bultzatu dute larunbateko senidetze egunaren ondorekin, urtean zehar, beste ekitaldi batzuk egiteko asmoarekin: Ibarrrako eta Lizarrako musika taldeen arteko elkartrukea, futbol partidak Lizarran lehenengo, ondoren, upategi batetara joateko, eta Ibarrran bigarren, ondoren sagardotegian afaria eginaz...

Hauek dira senidetze onartu duten taldeetako batzuk: Lizarrako Gure Hizkuntza Elkarte eta Ibarrrako Subegi Elkarte; La Bota eta Sendi Ekintza elkarteak, Lizarrako mendi elkarte eta Haitzetan Raju; Lizarrako eta Ibarrrako gaztetxeak; Lizarrako AEK eta Eneko Arizaren lagunak, dantza



Lizarrarekin anaidetuko da Ibarra larunbat honetan. ANDRES DIAZ DE CERIO-HITZA

talde nafarra eta Alurr dantza taldea...

Antolatzaileek ibartarrak «gogotsu» daudela esan dute, izan ere «zerbait berria» da.

«Senidetze erreal eta praktikoa bilatzen dugu»

Antolatzaileek «Euskal Herriak garai gogorak» bizi dituela nabarmendu dute eta horregatik egun bateko senidetzea izatea baino «senidetze erreal eta praktikoa bilatzen» dutela diote. «Senidetze erreal» urtean zehar egingo dituzten ekintzekin gorpuztu nahi dute.

«Euskal Herriaren izatea egunero desitxuratzen eta desagerra-

zatzeko pausoak ematen dituzte. Geureak ez diren banderak inposatzen dizkigute eta geureak desitxuratze saiakerak ez du etenik. Hor kokatzen ditugu azken hila-betean emaniko inposaketak, EITBn eguraldi maparekin irudikatuta dena edo Nafarroako Gobernuak Euskal Herria izena ikastole-tatik ezabatze asmoa... egunero ogian bilakatzen dira, hau asimilatu eta hontara ohituaz», argitu dute.

Honi guztiari aurre egiteko larunbateko senidetze egunean parte hartzeko deia luzatzen diete bi herrietako bizilagunei eta etxeetako balkoi eta leihoetan ikurrinajartzeko deia ere luzatu dute.

» EGITARAUA

- **10:00.** Lizarrakoei ongi etorria egingo zaie mondeju eta pipar jana.
- **10:30.** Ume jokoak.
- **11:00.** Kalejira dultzainero, trikitilari eta bertsolariez lagundurik.
- **13:30.** Senidetze ekitaldia plazan.
- **14:00.** Kantu bazkaria. Txartelak Zubiaurre, Atari, Sendi Ekintza eta Danon Txokoa tabernatan eskura daitezke.

- **16:00.** Gaztelu puzgarriak.
- **16:30.** Mus Txapelketa.
- **18:00.** Lizarra eta Ibarra herrien arteko herri jokoak.
- **19:30.** Senidetzearen murala aurkeztuko da.
- **21:00.** Txotx! eta ogitartekoak Sendi Ekintzan.
- **21:30.** Jaia Gaztetxean: Zaplasteko, erromeria Unsainekin eta eguna bukatzeko herriko DJak eta Lizarrako DJ bat ariko dira.

I. Ganadu, Artisau eta Barazki Azoka, etzi

Leaburu-Txarama » Larte Azpiko taldeak antolatuta du lehen aldiz; goizean izango da herriko produktuak erosteko aukera.

tzaileak ere, artzai-andrez jantzita egongo direla ere nabarmendu dute Larte Azpiko elkarteko kideek.

Postuez gain, herriko trikitilariak ere ariko dira goiz osoan zehar eta haurrentzako zalgurdia ere egongo da paseoak emateko.

ERREDAKZIOA

Leaburu-Txaramako Larte Azpiko kultur ekintza taldeak I. Ganadu, Artisau eta Barazki Azoka antolatuta du etzizako.

09:00etatik 14:00etara Leaburu plazan jarriko dituzte salmenta-tokiak eta bertan herriko produktuak erosteko aukera izango da; barazkiak, artisauen lanak, traste zaharrak, abereak... Guztira 19 bat postu jarriko dituzte eta honetaz gain, Larte Azpiko elkarteko herriko produktuekin egin-dako pintxoak eta edaria ere salduko dituzte.

Artzai-andrez jantzita

Azokan parte hartuko duten guztiak, bai antolatzaileak eta baita sal-



09:00etatik 14:00etara izango da azoka. HITZA

Asto Festa egingo dute hilaren 31n

Elduain » Asto-jaterako tiketak salgai daude jada 20 euroren truke Kontzeju tabernan edo udaletxean bertan.

gusia izango dute 09:45ean Santa Katalina elizan eta ondoren lore-eskaintza izango da hilerrian.

Bukatzeko urteroko hamaiketakoa banatuko dute Urdelar biltokian.

ERREDAKZIOA

Elduaingo Udalak Asto Festa antolatuta du hilaren 31rako. Bazkalduta eta gero hasiko dira ekitaldi guztiak eta gauerdian hasiko den DJrekin amaituko dute jai eguna. Afariko asto-jaterako txartelak eskura daitezke jada Kontzeju tabernan edo udaletxean bertan 20 euroren truke.

Santu Guztien Eguna

Bestalde, azaroaren 1ean, Santu Guztien Eguna dela eta, meza na-

» ASTO FESTAKO EGITARAUA

- **16:30.** Mugara igoera: 19 minutu eta 10 segundo markaren azpitik egiten saiatuko da Jose Luis Artola 53 urteko amasarra.
- **17:30.** Haurrentzako ibilaldiak zaldi gainean.
- **18:00.** Euskal kirolen erakustaldi herrikoia: ingudea, trontza, txingak, koxkolak...
- **21:00.** Herri afaria, asto jana, frontoiean.
- **00:00.** Diskoiaia.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Pernando Amezketarra Bertso Eskolan izena emateko aukera zabalik

Amezketarra » Bihar Ugarteko elkartean bertso-afaria egingo dute, ikasturteari «hasiera ona emateko» asmoz.

ERREDAKZIOA

Amezketarra Pernando Amezketarra Bertso Eskolak deialdia luzatu du eskolan izena emateko. Iazko «arrakastaren» ondoren, aurtenera martxan jarriko dute bertso eskola. Bertatik azaldu dutenez, «hasiera ona emateko» bihar Ugarteko elkartean bertso afaria egingo dute.

Eskolatik bertsoaritzaz gustuko duten guztiei gonbita egiten dute izena ematera. Horretarako aukera herriko tabernetan du bertsozaleak.

17 partidetatik 14 irabazi ditu Aurrera-Saiazek asteburuan

Pilota » Gipuzkoako Txapelketaren baitan lortutakoak dira; tarte handia lortu dute emaitza batzuetan.

ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiaz elkarteko pilotariak 17 partidetatik 14 irabazi zituzten Gipuzkoako Txapelketaren azken jardunaldian. Bigarren mailako kadeteetan 3-22 irabazi zioten Gure Etxeruri. Lehen mailako kadeteetan 22-21 irabazi zioten Oiarpe 1 taldeari. Jubeniletan banaka 22-0 eta 22-5 irabazi zuten. Lehen mailako jubeniletan Aurrera Saiaz 1ek Antiguakori 10-22 irabazi zion eta Aurrera Saiaz 2k galdu zuen 22-20 Añorgaren aurka. Bigarren mailako jubeniletan 11-22 irabazi zion Aurrera-Saiazek Añorgari eta Aurrera Saiaz-Intxurrek 20-22 irabazi zion Mundarrori. Seniorretan banaka, Aurrera Saiaz 1ek 5-22 galdu zuen Oskarbi 2ren aurka, Aurrera-Saiaz 2k 22-5 irabazi zion Aretxabalari eta Aurrera-Saiaz 3k 22-9 irabazi zion Oskarbi 1 taldeari. Hirugarren mailako seniorretan Aurrea Saiaz 2k 18-22 irabazi zion Lagunaki eta Aurrera Saiaz 1ek 22-4 irabazi zion Lapkeri. Bigarren mailako seniorretan Arrasateri 15-22 irabazi zioten eta lehen mailakoan Hernanirri ere 22-20 irabazi zioten. Ohorezko seniorretan Aurrera Saiaz 1 eta 2 lehiatu ziren eta 22-11 irabazi zuten 1 taldeak. Beste partidetan 22-11 irabazi zion Aurrera-Saiaz 3k Iluperi.



Gipuzkoako Batzar Nagusietan heriotz zigorraren aurkako adierazpen egin zuten atzo. Bere iloba presoaren izen berarekin Pako Larrañaga (argazkian zutik, ezkeretik bigarrena) bertan izan zen. HITZA

Pako Larrañaga aurki Martutenen izango dela azaldu du bere abokatuak

Alegia » Alegiar jatorriko presoa Espainiako espetxe-sisteman betetzen hasi da bere espetxealdia.

IMANOL GARCIA

Pako Larrañaga alegiar jatorriko preso Espainiako Auztegi Nazionalean izan zen atzo goizean, bere kasua ebaluatzeko. Javier Viada bere abokatuak azaldu duenez, espetxealdia Espainiako espetxe-sisteman betetzen hasi da dagoeneko. Aurki Martuteneko (Donostia) espetxera eramango dutela azaldu du Viadak. «Guk eskaera egin dugu eta orain espetxe-erakundearen esku dago noiz egingo den lekualdaketa. Espero dugu egun gutxi barru izango dela, gehienez bi astetan».

Larrañagaren familia oso pozik dago eta bere aitak azaldu duenez, semeak «poza erakusten duen begirada berreskuratu du». Viadak berak ere gaineratu du Larrañaga «oso pozik» dagoela. Presoaren gurasoak Madrilen zeuden atzo eta bere semea ikusi ahal izan zuten.

Behin Martuteneko espetxera eramaten dutenean, Viadak azaldu duenez baimenak eskatzen hasiko dira Larrañagarentzat, horien artean hirugarren gradua. Dagoeneko 12 urtez izan da Filipinetan preso Larrañaga. Bere kasuak «irteera egoki batizateko bide onean»

dagoela gehitu du Viadak. Larrañagari ezingo zaio berriro ere epaiketa egin. «Hori ezinezkoa da. Filipinetako epai irmoa da eta Espainian ezin da berriro ere epaiketa hori egin», jakinarazi du abokatuak.

Batzar Nagusietan Pako Larrañaga hizpide

Presoaren osaba Pako Larrañagak iloba Madrilerera eraman zutenean, «aspaldi espero genuen egun pozgarria iritsi dela» azaldu du. Larrañaga atzo goizean izan zen Gipuzkoako Batzar Nagusietan, erakunde honek egun batzuk lehenago eginiko heriotza zigorraren aurkako adierazpen instituzionala irakurtzeko. Berarekin irakurri zuten adierazpena Pablo Ibarren senitarteko batek. Larrañagaren osabak esker ona azaldu zuen ilobaren kasuaren jarraipena egin duten komunikabideei eta Espainiarretzean esku hartu duten erakundeak.

Batzar Nagusietan irakurritako testuan, besteak beste, «heriotza zigorra arbuizaten dute, edonon eta edozein direla ere inguruabarrak. Zigortzeko era hori diskriminatzailea eta ankerra delako, ezin delako atzera bota, eta giza-eskubideen aurka doalako». Adirazpenean Larrañagaren familia gogoan izan du Batzar Nagusiak: «Adorea eta kementa helarazten dizkio burroka mingarri eta luzarearen bukarako aro honetan, biziki borrokatu baitute Pako Larrañaga hil ez

dezaten eta Espainiara bidal dezaten lortzeko. Sinetsita gaude Pako itzultzeko eguna gertu dagoela».

Rafaela Romero Batzar Nagusietako lehendakariak berretsi zuen Larrañaga familiari eskertza, «Pako Larrañaga exekutatu ez zezaten egindako borroka biziaren aldeko garaipena lortu duelako: Pako salbatzea eta mundu guztian pauso handia ematea».

Larrañagaren familiak uneoro defendatu du bere erregabetasuna eta epaiketa ez zela justua izan salatu dute. Epaiketa horren arabera heriotza zigorra ezarri zioten bi ahizpa bortxatu eta hiltzeagatik. Ondoren, heriotza zigorraren orde z bizi guztirako espetxe zigorra ezarri zioten. Filipinak eta Espainiaren arteko hitzarmenaren ondorioz, Larrañagak Espainiako espetxe-sisteman beteko du zigorra.

» KRONOLOGIA

- **1997-07-16.** Chion ahizpen desagertzea salatzen dute, 19 eta 21 urtekoak.
- **1997-09-16.** Pako Larrañaga atxilotu zuten, bi nesken erailketa egotzita.
- **1999-05-05.** Larrañaga betiko kartzela zigorrera kondenatu zuten, beste inputatuekin batera.
- **1999-10-07.** Kartzela zigorra ezarri zuten Cebuko epailea buruan tiro batez hilda aurkitzen dute hotel batean.
- **2004-02-03.** Epaitegi Gorenak heriotza zigorrera kondenatzen du Larrañaga. Ondorioz, familiak launtza eskatzen du Euskal Herrian eta Espainian.
- **2004-02-17.** Larrañaga New Bilibid espetxean sartzen dute. Bertan heriotzera kondenatuak dauden pabilioian sartzen dute.
- **2005-04-28.** Europako Legebiltzarrik Filipinei eskatzen die Larrañagaren kasua berrikusi dezatela.
- **2005-05-15.** Larrañagak EBri launtza eskatzen dio.
- **2006-06.** Gloria Pacapagal Filipinetako presidentek heriotza zigorra baliogabetu zuen Filipinetan. Ondorioz, Larrañaga heriotza itxarongelatik ateratzen da.
- **2006-08-03.** NBERen Giza Eskubideen Komiteak adierazten du Larrañagaren epaiketa ez zela bidezkoa izan eta Filipinei 90 egun ematen dizkio «konponbide eraginkor bat» bilatu dezaten.
- **2008-05-18.** Espainiako eta Filipinetako Gobernuak presoaren lekualdatzeari lotutako ituna sinatu zuten.
- **2009-03-24.** Filipinek presoaren Espainiaratzea baimentzen dute.
- **2009-05-26.** Larrañaga sendiak falta diren bi tramiteak burutzen ditu: 12.500 euro ordaintzea biktimen gurasoei eta zigor-egiaztagiria entregatzea.
- **2009-09-06.** Chiong familiak dio Larrañagaren lekualdatzea oztopatzeko auzitan jardungo duela.
- **2009-09-25.** Espainiako Kontsulatu Orokorrik Filipinetan zuzenean azaltzen dio Larrañagari bere lekualdatzea baimendua izan dela.
- **2009-10-06.** Larrañaga Filipinetatik ateratzen da eta Madrilerara iristen da.
- **2009-10-07.** Espainiako Auzitegi Nazionalatik pasatzen da Larrañaga. Espainiako espetxe-sisteman beteko du zigorra.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



19°
13°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS. ESTALIA
BEROENA 20°
HOTZENA 13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: S5-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-ko Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

■ **Tolosa.** *Un lugar en la cumbre* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean jatorrizko bertsoan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** 1969. urtean jaiotako gizon eta emakumeentzako bazkaria antolatuta duete azaroaren 14rako, larunbatarekin, Fronton jabetxean. Izen-ematea, 55 euro ingresatuz La Caixa-ko 21001758 64 0100260547 kontu korrontean.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** A1N1 gripeari buruzko hitzaldia, Tolosako DYAK antolatuta, Kultur Etxean 20:00etan.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Iñigo Altolagirrenen pintura erakusketak Aranburu Jauregian.
■ **Hernialde.** Mikel Iriondok Kuban ateratako argazkiak ikusgai daude Hernialdeko Ostatuan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalzarreta, 1. 943 673649.
■ **Lekunberri.** Mendi, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Golb TB. **09:00.** Muka-Muka.
09:30. Tolosaldean Gaur. **10:00.** Gipuzkoa kultura. **10:30.** Verdini 2. **11:00.** Ikusten. **11:30.** Tolosaldean Gaur.
12:00. Klipak. **12:30.** Wazemank.
13:00. Alex eta Alexis. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Gipuzkoa kultura.
14:30. Verdini 2. **15:00.** Ikusten. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Klipak. **16:30.** Wazemank. **17:00.** Alex eta Alexis.
17:30. Tolosaldean Gaur. **18:00.** Kafe t'ardi. **18:30.** SB Hazienda Pirineakoia.
19:00. Itsasoari begira. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** EH lau haizetara.



Garmendiak daki gehien Alde Zaharrari buruz

TOLOSA ■ Erretengibeleg bultzatuta, Tolosako Alde Zaharrari buruzko lehiaketa jarri zuten abian. Bertan Tolosako Alde Zaharrari buruzko hainbat galdera proposatzen zituzten eta parte-hartzaileek, 16 urte azpikoak izan behar zutenak, hauek erantzun behar zituzten. Galdera guztiak ondo erantzun zutenen artean zozketa egin zuten herenegun eta lker Garmendia suertatu zen irabazle (irudian). Gazteak 150 euro-ko saria irabazi du. HITZA

* (16:30etik 20:30era bitarteko blokea lau orduko errepikatuko da, 08:30etik arte).

» IRRATIA

Txolarre irratia

10:45-11:00. Argia astekaria.
11:00-13:30. Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak.
13:30-14:00. Albistegia - Info 7.
14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.
17:00-17:45. Musika nobedadeak.
18:00-20:00. Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena).
20:00-20:30. Albistegia, Info 7.
20:30-21:00. Mintzatzen zinemari buruzko saioa.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan mordoska!
Mireia Arrospide (Lizartza).
Gaur 11 urte. Ba al dugu gonbiterik? Muxu asko Beasanekeen partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



denda



eskura ezazu...

HITZAren poltsa!